

BESTELAKO XEDAPENAK

LAN ETA ENPLEGU SAILA

5135

AGINDUA, 2023ko urriaren 20koa, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuarena, zeinaren bidez kargutik kentzen baitira Prestakuntza-premiak aztertu eta hautemateko Aholku Batzordeko titularrak, eta beste batzuk izendatzen baitira.

Euskal Autonomia Erkidegoan Enplegurako Lanbide Heziketa arautzen duen maiatzaren 31ko 82/2016 Dekretuak beste kudeaketa-eredu bat ezarri zuen, eta sistema bakarrean integratu zituen gure lurraldean Enplegurako Lanbide Heziketaren arloan egiten diren jarduera guztiak. Dekretu horren 10. artikulua Prestakuntza-premiak aztertu eta hautemateko Aholku Batzordea sortzen du, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren aholkularitza-organo gisa, eta organo autonomo horri atxikia.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2019ko uztailaren 30eko Aginduaren bidez, Prestakuntza-premiak aztertu eta hautemateko Aholku Batzordearen osaera eta funtzionamendua arautzen dira.

Agindu horren 4. artikulua xedatzen duenez, honako hauek izango dira Prestakuntza-premiak aztertu eta hautemateko Aholku Batzordeko kideak: Administrazioaren ordezkari gisa, 10 kide; enpresa-erakunde esanguratsuenen ordezkari gisa, 5 kide; eta erakunde sindikalen ordezkari gisa (erakunde horietako bakoitzak duen ordezkari-kopuruaren arabera), 5 kide.

2019ko uztailaren 30eko Aginduaren 5. artikuluko 1. apartatua xedatutakoaren arabera, batzorde horretako kideen agintaldia 4 urtekoa izango da, eta, agintaldia amaitzean, berriz hautatu ahal izango dira. Hala ere, artikuluko 3. apartatua xedatzen du Prestakuntza-premiak aztertu eta hautemateko Aholku Batzordeko kideen agintaldia ezarritakoa baino lehen amaitu ahal izango dela izendatzeko eskumena duen organoak erabakitako errelokazio edo kargutik kentze bat egon den kasuetan, dela kideen ekimenez, dela izendapena proposatu zuen Administrazioak, enpresa-erakundeak edo erakunde sindikalak alde aurretik eskatuta eta arrazoituta, edota kideak galdu egin duenean kide izendatzeko arrazoia izan zen izaera, kargua dela-eta batzordekide izendatu diren pertsonen kasuan.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2019ko abenduaren 27ko Aginduaren bidez (2020ko urtarrilaren 31ko EHAA, 21. zk.), prestakuntza-premiak aztertu eta hautemateko Aholku Batzordeko kideen hasierako izendapenak egin ziren, gai hori arautzen duen aginduan xedatutakoaren arabera.

XII. legegintzaldia hastearren ondorioz, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuaren 2021eko otsailaren 24ko Aginduaren bidez, batzorde horretako kide batzuk kargutik kendu ziren, eta beste batzuk izendatu.

Ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak izendatutako pertsona batzuk kargugabetu egin dira, eta, beraz, beharrezkoa da berriz ere kargugabetzeak eta izendapenak egitea.

Horregatik guztiagatik, emandako ahalmenak erabiliz, honako hau

2023ko azaroaren 15a, asteazkena

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Kargutik kentzea Prestakuntza-premiak aztertu eta hautemateko Aholku Batzordeko kide hauek:

– Francisco Pedraza Moreno jauna, Lan eta Enplegu Sailak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren titular izendatua.

– María Gloria Mujica Conde andrea, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren titular izendatua.

Bigarrena.– Haien ordeztu, honako pertsona hauek izendatzea Prestakuntza-premiak aztertu eta hautemateko Aholku Batzordeko kide, harik eta agintaldia betetzeko geratzen den denbora bukatu arte:

– Enrique Ramos Vispo jauna, Enplegu eta Gizarteratzeko zuzendaria, Lan eta Enplegu Sailak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren titular izendatua.

– Francisco Pedraza Moreno jauna, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren titular izendatua.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman dadila agintzea.

AZKEN XEDAPENA

Onartzen denetik aurrera izango ditu ondorioak agindu honek.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urriaren 20a.

Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.